

Zesar Tito Libioren lanean: imitazio eraldatzailearen etsenplu bat diskurtso historikoan

Jesús Bartolomé
EHUko irakaslea

Libiok (*AVC* 10. 28.8-12) Zesarren lanetik (*BG* 4. 33.1-34.1) hartu duen pasarte bat aztertzen da artikulu honetan imitazio legez: Zesarrek britaniar gisa aipatzen duen gerra taktika bat, orgetako borroka alegia, Sentinoko gudaldian txertatu du Libiok. Narrazio historikoa ulertzeko bi era erakutsi nahi dira konparaketa honen bitartez, imitazioak literatura erromatarrean duen garrantzia eta eginkizuna nabarmenduz. Ihardunbide dinamiko eta esanguratsu bezala azaltzen da imitazioa, bi testuren arteko erlazio eraldatzaile legez (testuartekotasun prozesua). Bide batez, Antzinateko historiografiak egungoaren aldean dituen ezaugarri berezi batzuk erakusten dira.

The article analyses a passage taken by Livy (*AVC* 10. 28.8-12) from Caesar's work (*BG* 4. 33.1-34.1) by imitating: the chariot war, a war tactic mentioned by Caesar as Briton, is vaccinated in the War of Sentinum by Livy. By this comparison, the analysis pretends to show us two types of comprehension of the historical narration, standing out the importance and the task imitation has within the Roman literature. Imitation is presented as a dynamic and important procedure, capable to change the relation between both texts (inter text procedure). At the same time, the article displays some characteristics the ancient historiography has in comparison with the actual.

Ez da berdin bi kreazio lanen arteko imitazioa, batik bat Antzinateko poeten kasukoa, edo historialari batek beste bat imitatzen dueneko¹, aipu zuzena nahiz zeharkakoa izan barik gertakizun bera testuinguru berri baterako egokitzen duenean —edo idazle batek pasarte bera leku bat baino gehiagotan darabilenean²— behinik behin. Narrazioa erreferentea, beste era batera esanda gertatutakoarekin zintzoa izan beharra, muga berri bat da, ustez, historialariarentzat imitazio lanean, poetaren imitazio lan askean ez dagoen muga bat. Lan historiko batean pasarte bat imitatzea gertatutakoaren egiari bizkarra ematea izan liteke: errepikapena mitoaren eta legendaren funtsa bera da, baina ez du izan behar historiarena³. Horregatik esan genezake bere ezaugarri bereziak, edo hobe erantsiak, dituela imitazio lan honek. Baina historiografia narratiboari —Antzinatean ez dago besterik⁴— diskurtso mota honek ematen dion izaera kontutan hartzen badugu, eta gertakizunei kasu egitea ez dela soilik datu positibo hutsak eskaintzea ulertzen badugu, beste

ikuspegi batetik aztertu ahal izango dugu fenomeno hori (cf. Woodman 1988: 100 hh.). Bestalde ados gaude R. Williamsekin ere, errealtatea eta fikzioaren artean muga garbirik gabeko *continuum* bat dela dioenean⁵ eta zalantzarik gabe egia egokiaren lekua, historiakoarena, beste egia mota batek har dezake, aurkikuntzakoak, Todoroven hitzak erabiliz (1991: 152-153).

Azalpen hau bereziki egokia da Antzinateko praktika historiografikoari dagokionean, zeinetan maiz sortzen baitira, epikan bezala, eszena tipikoak: errealtatean ere errepikatzen dira egoerak, baina testuetara eramatean egitura jakin batzuk errepikatzeke joera baldin badago, izan liteke hauek zerikusia izatea egoera errealekin. Ez dute, ordea, datu konkretuekin bat etorri beharrik⁶. Lan historiko batek bi osagai —banaezinak, jakina, maila analitikoan ez bada— dituela onartzeak —Antzinatekoen ari gara, noski, baina uste dugu antzera esan litekeela gainerako produkzio historiografikoaren zati handi batez⁷— ez luke eztabaida handirik sortu beharko: bata

1. Artikulu hau berriaz UZTARO aldizkarirako gaztelaniaz idatzia eta Gidor Bilbaok euskaratua da.

2. Iturriak nahastean nahi gabe sorturiko bikoizketek gain —ugari dira hauek Libioren lanean (cf. Walsh 1989: 138 hh.)—, badira nahita egindako autoimitazio kasuak ere, narrazioan justifikatuak. Adibide esanguratsua da ekintza bera famili talde bateko kide ezberdinekin aipatzen dueneko (Walsh 1989: 88). Beste historialari batzuek ere, Tazitok esaterako, egiten dute horrela (cf. Woodman 1979: 143-155).

3. Woodmanek (1979: 154-155) uste du eszena jakin batzuk errepikatzearen helburua irakurlearen atsegina dela.

4. Historiografia erromatarren ezaugarri orokorren berri izateko sarrera moduko egokiak dira André-Hus 1975 eta Flach 1992.

5. C. Strouten lanetik (1992: 154) hartu dugu zati hau: «There is a border country where history and literature encounter each other. If taken literally, the traditional Aristotelean division between the historical actual and the literary possible ignores the role of possibility in historical analysis and the role of actuality in the writing of literature. What could happen, what typically happens, what might have happened, as R. Raymond Williams [*Marxism and Literature*, Oxford, 1977, 148. or.] has noted, constitute complex overlapping positions on a spectrum that appears in the major forms of epic, romance, drama and narrative».

6. Ohiko gertakizunen kontakizuna eta kontakizun literarioaren arteko harremana argia da eta hura literaturtasunaren barruan aipatzea konbentzio bat dugu. Orobat narrazio historiografikoari dagokionean (cf. Bange 1986: 76 hh.).

7. Horrela egiten du J. Fontanaren analisiak (1990: 17-24).

erabat literarioa, bere zentzu osoan, beste edozein testu narratiborekin konparagarri egiten duena, eta bestea diskurtso historikoa gertakizunen mende jartzen duena, leialtasun beharrez⁸. Bi alderdiak hartzen badiugu kontutan, hobeto epaituko ditugu imitazioak testu historiografikoetan eskaintzen dituen posibilitateak eta ondorioak. Libio eta Zesar dira esan duguna hobeto erakusteko erabiliko ditugun idazleak.

Ez dirudi zalantzan jar daitekeenik Libiok ezagutzen zituena Zesarren *Commentarii* direlakoak (Klotz 1953: 62-67); hori ez da guk aztertuko duguna, Paduako historialariak Zesarri hartu dion pasarte bat baino, gure ustez imitazio etsenplu nabarmena⁹. Gure eginkizuna, paralelotasun horren berri ematea baino gehiago izango da bere funtzioa azpimarratzea eta pasartearen lekua aldatzeko, bere egitura propioan sartzeko eta funtzio berri bat emateko erabili den metodoa aztertzea.

Hasteko aitor dezagun imitazio oro dela guretzat testualki esanguratsu¹⁰, mailegua hartzen duen testuan funtzio jakin bat betetzen baitu eta aldiberean imitaturiko testuaren irudi nolabait ezberdin bat sortzen¹¹. Gure ustez historialari paduarraren imitazioak ez

ditu gertakizunak funtsean eraldatzen baina baditu bere ondorioak, eta ez soilik literatur mailan.

Berez erromatarrena ez den borroka molde bat agertzen da azterkizun ditugun bi pasarteetan, herri zeltarrei egotzia: galiarrek (Libio) eta britaniarrek (Zesar) iharduten zuten borroka molde horretan, gurdi mota berezi batekin (*essedum*). Pollackek (1970: 687) dioenaren arabera zeltarrena da gerra-gurdi mota hau¹² eta galiarrek 295. urtea baino beranduago utzi zuten borroka molde hau, hots Sentinoko gudaldiaren ondoren zeinetan agertzen baita lehenengoz teknika honen erabileraren berri –hain zuzen ere gu aztertzen ari garen Libioren pasarteaz ari da–. Geroztik soilik britaniarrek erabili omen zuten. Azalpena zentzuzkoa da, aitzakiak ere aurki dakizkiokeen arren: Zesarrek borroka moldearen berritasuna behin eta berriro azpimarratzea –horregatik deskribatzen du hain zuzen– da arazo larriena, baina ez dagokigu guri halako eztabaidetan sartzeari. Guk agertu nahi duguna da pasartearen antzekotasunean oinarriturik pentsa genezakeela Libiok, bere iturrietan ere erreferentzia aurkitu arren –hortik ekin bide zion gero ondorengo garape-nari–, Zesarri jarraituz sortu zukeela kontakizuna¹³.

8. Gai konplexu eta aski aztertua da hau eta ez dugu guk hemen eztabaidatuko (cf. Bartolomé 1994: 293-294). A. Pennacini editore duen lanean (1983) arazo honetarako hurbilbide ezberdinak aurkitzen dira.

9. Weissenborn eta Müllerren iruzkin liburuan (1926) ez da hau nabarmentzen; *essedis* hitzaren erabilera iruzkintzean Zesarren aipatu pasartera bidaltzen dute, besterik gabe.

10. Intertestualitatea aipa genezake, egungo literatur kritikak zabaldu duen termino bat hartzearen eta aldiberean iturri-bilaketa soiletik aldentzearen. H. Plettek (1991) egin du kontzeptu honen esanahien eta posibilitateen azterketa on bat.

11. Bat gatoz G. B. Conterekin (1985: 52-79) zehar-aipeak tropoen antzeko funtzioa duela dioenean.

12. Ikus *essedum* sarrera *Thesaurus Linguae Latinae*-n.

13. Taktika hau herri ezberdinei egoztea ere ez da eragozpena, bien arteko harremana argia baita. Ez da harrizkekoa gainera nahastea; Tazitok ere aipatzen du, britaniarrei buruzko *excursus*-ean (*Agricola*, 11. 3-5), bi herrien izaera antzekoa kontutan hartuta senitarteko izan litezkeela: «proximi

Goazen dagozkigun pasarteetara. Lehen, Zesarrena, britaniarren aurkako borrokaldian kokatzen da. Galiarren aurka ari da gudalburu erromatarra eta hauek britaniarren laguntza hartzen dutenez itsasoa zeharkatu eta arrisku hori aurretik kentzea erabakitzen du (BG 4. 23)¹⁴. Zenbait gorabehera militarren ondoren, erromatar ontzikada bat hondoratzean egoera zailean geratzen da Zesar eta britaniarrak, hau jakinda, erasotzera deliberatzen dira (BG 4. 28-32). Zelataldi bat prestatzen dute eta euren zaldieriaz eta gurdiez gudari erromatarrak inguratzen. Puntu honetan gertatzen da guri dagokigun pasarte. Egoera azaldu eta gero, zehatz-mehatz deskribatzen du Zesarrek orga hauen guda-teknika. Berritasunak eta jakin nahi etnografikoak eraginda¹⁵, gelditu egiten du kontakizuna, gertakizunen bilakabide narratiboa hautsiz, neurri handi batean narrazioaren dramatizazioa kaltetuz:

Hauxe da borroka orgetatik egiteko modua. Lehenbizi alde guztietatik hara-honakutzen dira zaldiekin, jaurtigaiaik botatzen dituzte eta hala zaldiek sorturiko izuaz nola gurpilen abarrotsaz herronkak nahasi ohi dituzte; zaldizko sailen artean sartuak direnean orgetatik

jauzi egin eta oinez egiten dute borrokan. Bitartean piskanaka-piskanaka aurigak borrokalditik baztertzen dira eta, etsai saldoak hertsatuz gero, euren aldekoengana erretiratzeko bidea zabalik izateko moduan jartzen dituzte gurdiak [...].

Halako egoeran, borroka-moduaren berritasunarengatik gutarrak nahasirik zirelarik, une ezin egokiagoan ekarri zuen laguntza Zesarrek, bera iristearekin bat etsaiak gelditu egin baitziren eta gutarrek beldurra galdu (Zesar BG 4. 33.1-34.1)¹⁶.

Deskripzioetako ohikoa da, oso osoan, sarrera modua: hasieran, saiakera teknikoetan bezalatsu, definituko denaren gaia edo izenburua (*genus hoc est ex essedis pugnae*) eta ondoren definizio edota deskripzioa; orainaldiaren nagusitasuna ere sarri aurkitzen da deskripzioetan eta *excursus*-aren mugak zehazten ditu formalki –deskripzio dinamikoa izan arren: *primo... dein... interdum...*–, lehenaldian dagoen inguru narratiboarekin kontrastean: *perturbauerant... circumdederant* (4. 32.5), *auxilium tulit, constiterunt... receperunt* (4. 34.1). Hain zuzen ere borroka-modu baten deskripzio teknikoa izatean dago gero berrerabilia izateko giltza, autoritate

Gallis et similes sunt, seu durante originis vi, seu procurrentibus in diversa terris positio caeli corporibus habitum dedit. in universum tamen aestimanti Gallos vicinam insulam occupasse credibile est. eorum sacra deprehendas «ac» superstitionum persuasione<s>; sermo haud multum diuersus, in deposcendis periculis eadem audacia et, ubi aduenere, in detrectandis eadem formido. plus tamen ferociae Britanni praeferunt, ut quos nondum longa pax emollierit. nam Gallos quoque in bellis floruisse accepimus; mox segnitia cum otio intrauit, amissa uirtute pariter ac libertate».

14. Britaniarrek galiarrei laguntzen dietela onartzen du idazleak eta galiarrek ez dutela Britania ezagutzen dioen arren bi herrien arteko harremanak ere aitortzen ditu beste zenbait lekutan (2. 4.7, 2. 14.4 eta 3. 8). Druidei buruz dioena ere (6. 13.10-11) interesgarria da alde honetatik.

15. Herri eta ohitura ezberdinei buruzko digresioak ohikoak dira Antzinateko historiografian.

16. «Genus hoc est ex essedis pugnae. Primo per omnes partes perequitant et tela coniciunt atque ipso terrore equorum et strepitu rotarum ordines plerumque perturbant, et cum se inter equitum turmas insinauerunt, ex essedis desiliunt et pedibus proeliantur. Aurigae interim paulatim ex proelio excedunt atque ita currus conlocant ut, si illi a multitudine hostium premantur, expeditum ad suos receptum habeant [...].

Quibus rebus perturbatis nostris nouitate pugnae tempore opportunissimo Caesar auxilium tulit: namque eius aduentu hostes constiterunt, nostri se ex timore receperunt».

gisa har baitaiteke¹⁷. *Excursus* laburra amaitu ondoren, Zesarren ohiko transizio formula bat dator, ablatibo absolutua, borroka mota honek gudariengan izan duen eragina deskribatzeko. Iraulteta edo egoera aldaketa prestatzen du horrela, Zesarren beraren partehartzea aurkeztuz (*Caesar auxilium tulit*) hasierako egoerarekiko ezberdintasunarekin batera: gudariak ihesa baztertu eta borrokara itzultzen dira adorea berreskuratuta.

Bigarren pasarte, Libioren *Ab Vrbe Condita* liburukoa, honen lehenengo liburu bildumako gerra kontakizun konplexuenetako batean kokatzen da, Sentinoko gudaldian hain zuzen. Ezkerreko hegalean Publio Dezio kontsulak eta eskuinekoan Kinto Fabio Maximok zuzendu zuten borrokaldi hau etruriar, unbriar eta samnitek galiarrekin batera osaturiko koalizio baten aurka¹⁸. Ezkerreko hegaleko zaldieria erromatarrek eraso egiten du eta beroaldian galiarrek prestatuturiko zelaldia batean jausten dira:

Deziok [...] zaldieriari deitzen dio borrokara eta berak, gazte adoretsuen sail batean sartuta, etsaiaren aurka berarekin batera erasotzeko eskatzen dio gazteria aukeratu honi [...]. Birritan atzerarazi zuten zaldieria galiarra; bigarrenengoan urrunegi joan ziren eta jada oinezko taldeen artean borrokan ari zirela borroka mota berri batek izutu

zituena. Etsaia, armak hartuta gerra-orga eta gurdien gainean zutik, zaldietan gurpil-zarata itzelarekin bertaratu zen eta hartara ohitu gabeak ziren erromatarren zaldia izutu zituen. Honela eroarena gisako izu-laborriak sakabanatu egiten du zaldieria garai-lea, gero bat-bateko ihesak lurrera botatzen ditu abiadan zaldia eta zaldikoak [...]. Orduan legioen ikurren artean ere asaldua nahasi zen [...]. Oihuka aritu zen Dezio... (Libio, 10. 28.8-12).¹⁹

Libiok, teknikaren deskripzioa hartu barik, borroka moldearen berritasuna –Zesarrek seinalaturiko bera da asalduren zergatia– eta sorturiko izua soilik seinalatu ditu. Erabilitako terminoak aski nabarmenak dira gure ustez eta imitazioa salatzen dute. Giltza nagusia den *essedum* terminoa bera ere hemen bakarrik erabili du Libiok eta bestela ere ez da askotan aurkitzen zentzu honekin latin literaturan, Zesarren beraren lanetan ez bada²⁰.

Libiok ez du borroka taktika deskribatu beharrik, aurretik deskribatua duelako Zesarrek; irakurleak hau ezagutzen duela pentsatzen du Libiok eta ezagutzen ez badu ez du bere testua ondo ulertuko. Ez du gehiegi axola Zesarren testuan berritasuna dena, K. a. 55. urterako kasu honetan, Libioren testuan ere berritasun gisa agertzea K. a. 295erako²¹. Are ge-

17. Testu mota honek aipatua izateko gaitasun berezia du, pasarte poetiko jakin batzuek edo poema barruko leku berezi batzuek bezalatsu. Honi buruz ikus Conte 1985: 64 hh.

18. Borrokaldi honen azterketa sakon bat ikusteko cf. Bartolomé 1995: 182-183.

19. «Decius [...] equitatum in pugnam concitat et ipse fortissimae iuuenum turmae immixtus orat proceres iuuentutis, in hostem ut secum impetum faciant [...]. bis auertere Gallicum equitatum; iterum longius euectos et iam inter media peditum agmina proelium cientes nouum pugnae conterruit genus; essedis carrisque superstans armatus hostis ingenti sonitu equorum rotarumque aduenit et insolitus eius tumultus Romanorum conterruit equos. ita uictorem equitatum uelut lymphaticus pauor dissipat; sternit inde ruentes equos uirosque improuida fuga [...]. Turbata hinc etiam signa legionum [...]. Vociferari Decius...».

20. *TLL*-ko datuen arabera hain gutxi erabilia izateak areagotu egiten du agerpenaren garrantzia.

21. Aipatu dugu gorago Pollacken azalpena baina ez da ahaztu behar berritasuna modu subjektiboan ere uler litekeena.

hiago, arrazoi bat gehiago da imitazioa dagoela pentsatzeko. Gainera indartu egiten da horrela narrazioaren egiantzaren bilaketa, soilik gertakizun hutsak aztertzen dituen ikuspegi positibista batetik aurkakoa iruditu arren.

Deigarria da orobat Zesarrek bere narrazioan darabilen errekurtsio bat berriro aurkitzea, aliterazioa alegia, *r* soinuarena hain zuzen: *terrore equorum et strepitu rotarum ordines plerumque perturbant* pasartean argi ikusten da gurdi-gurpilen soinua imitatu nahia eta antzeko zerbait esan daiteke Libioren zati honi buruz: *nouum pugnae conterruit genus; essedis carrisque superstans armatus hostis ingenti sonitu equorum rotarumque aduenit et insolitos eius tumultus Romanorum conterruit equos*²².

Bi pasarteak testuinguru narratibo berean amaitzeak ere indartu egiten du imitazioaren hipotesia eta honen funtzioa argitzen laguntzen digu. Konparaketa egin ondoren, testuarteko erlazio honek Libioren lanaren barruan duen funtzioa ezartzea dagokigu beraz. Baina honek ez du esan nahi egilearen helburuak azaleratzea, hauek aztertzeak literatur testuen kasuan baino zentzu handiagoa duela testu historikoetako imitazioan onartu arren (cf. Conte-Barchiesi 1989: 88-93); hots, soilik literarioa eta historiokoaren arteko marra ahularen inguruan ari gara.

Sentinoko gudaldiaren kontakizunaren testuinguruan indartu egiten da

ideia hau, bigarren imitazio bat ere aurkitzen dugu-eta, kasu honetan autoimitazioa, Libiok bere lanetik hartua. Publio Dezioren *deutio* delakoa²³ –bere buruaren eskaintza publikoa, bere ejerzituaren salbazioaren alde–, Publio Dezio Mus aitaren *deutio*-aren narrazioan ezarririko ereduaren arabera kontaktzen du. Paduarak berak aurreko gudaldi batean, hain zuzen ere Vesperisen latindarren aurka 340. urtean kokaturikoan, eskaintzen duen aitaren *deutio*-aren kontakizuna eta Sentinokoa hain dira antzekoak non zaila baita asmakizuna –ez halabeharrez Libioren– direla ez pentsatzea, izan ere errekurtsio ezaguna baita sendi bereko kideei garai ezberdinetan antzeko ekintzak atxekitzea²⁴. Litekeena da pasarte hauek iturriren batetik hartuak izatea ere, baina hala ere argi dago konszienteki hartu eta berriro lantzen dituen. Alde honetatik, interesgarria da ikustea zelan saiatzen den Libio errepikaturiko gertakizuna diskurtso historikoan txertatzen, zerbait naturala balitz bezala, egiantzekotasun narratiboaren mesedetan. Lehenengo, P. Dezio beraren diskurtsoan sartuz:

P. Dezio aitaren izena aipatuz esan zuen: «zertarako atzeratu ene sendiaren patua?» (10. 28.12)²⁵.

Gero, bi gertakizunen arteko konparaketa zuzena eginez:

Orduan bere burua eskaini zuen P. Dezio aitak Vesperis inguruan erabili zituen hitz eta jarrera berberekin (10. 28.15)²⁶.

22. Beste idazle batzuetan ere (Martzial, 4. 64.20 eta Klaudioano, *carm. min.*, 18. 18) aurkitzen ditugu gurdi-zaritari buruzko aipamenak, baina hauetan ez dago halako onomatopeiarik.

23. Berezia da *deutio* hau erabiltzea eta agertzen den guztietan aurkitzen dugu egitura bera, aldaera batzuekin. Hain zuzen adibiderik argienak Deziotarren hauek dira (8. 9 eta 10. 29). Azterketa on bat irakurri nahi duenak ikus bitza Guittard 1981: 40 hh. eta 1987: LV-LXXXVIII.

24. Ikus 2. oharra.

25. «Patrem P. Decium nomine compellans "quid ultra moror familiare fatum?"».

26. «Deutus inde eadem precatatione eodemque habitu quo pater P. Decius ad Vesperim».

Itzul gaitzen alabaina Libiok Zesarrengandik harturikora. Gure ustez bi dira paduarrak iristen dituen xedeak.

Lehenbizi, baliagarri legez onartzen du Zesarren diskurtsoa, hala Galiei buruzko lanean aipaturiko herriei dagokienean²⁷ nola gudagintzari dagokionean honen maisutasuna aitortuz, iritzi orokorarekin bat eginez. Literatur ereduarekin batera eredu historiko bat ere egiazkotzen du honenbestez Libiok datuei dagokienean, hauek gertakizunen egiarekin bat etorri ez arren.

Bigarren, bere diskurtso historikoa egiazkotzen du: erreferentzia konkretuarekin errealitate antza lortzen du, magikotasunaren aurkako errealitate materialarena. Libioren zati hau kokatuta dagoen testuinguruko gudaldian gertakizun deigarri askok mundu magiko eta erlijiosoa gogorarazten dute²⁸ eta Zesarren testuak ordea egiantzekotasuna eskaintzen du. Gainera honela sinesgarriago ere egiten da errepikatua izateagatik sinesgaitz izan litekeen kontakizun bat. Beste era batera esanda, Libiok kontatzen duen gudaldian ugari dira gertakizun bitxiak –hauetako bat erre-pikatua– eta Zesarren autoritatea kontaturikoaren berme bezala aurkezten du.

Literatur teknikari dagokionean, bi kontakizunen konparaketak ezberdintasun aipagarriak ere azaleratzen ditu, are nabarmenagoak bi pasarteetan arteko imitazio-erlazioari esker. Antzekoa da bien testuinguruaren egitura eta errazago egiten du honek bien arteko konparaketa. Lehenengoz agertzen denean borroka molde bakoitzari buruzko azalpenak eskatzen ditu Zesarren lanaren izaerak. Libiok ordea, gudaldiaren egoeraren elementu argigarri bezala txertatzen du. Oso ondo ikusten dira beraz bi historialarien helburuak, hots, Zesarren xede informatzailea eta Libioren artistikoa.

Esan dugu antzeko testuinguruan txertatzen direla bi pasarteak baina ezberdintasunak ere badira, bereziki teknika narratiboari dagokionean eta narrazio historikoa ulertzeko eran, baina baita beste arlo batean ere. Ustegabea (*peripéteia*) edo iraulketa gertatzen denean txertatzen da borroka molde hau bi kontakizunetan, hots, gertakizunak ustegabearen eta modu bortitzean aldatzen diren sinesgaitz²⁹. Ondoko hauek aipatzen ditu E. Burckek ustegabearen oinarriko elementu gisa: mailakatzea edo tentsioa, ustegabekotasuna eta kontrastea³⁰. Bereizketa egiteko elementu erabakiorra kontrastea da, hasierako eta amaierako egoeren artekoa. Ustez

27. Aski esanguratsua da Amianok Galiaren deskripzioa egitean (15. 11) nola erabiltzen duen Zesar.

28. Errenkadan diren ilaretan otso bat agertzen da, erromatarren animalia totemikoa, orein-eme baten atzetik; erromatarren aldeko augurio bezala ulertzen dute hau (10. 27.8-10).

29. Tragedian ia ezinbestean erabili behar da errekurtsio hau, Aristotelesek bere Poetikako X. kapituluaren ezarritakoa jarraituz gero.

30. «Drei Momente sind es vornehmlich, auf denen die Wirkung einer Peripetie beruht: 1.- es muß klar das Ziel aufgewiesen werden, zu dem eine Entwicklung, die der Leser mit seinem Interesse begleitet, hinführen soll. Diese wird zur Erhöhung der Spannung häufig in Form einer Steigerung gegeben werden. 2.- Der Umschwung muß überraschend erfolgen. 3.- Die dadurch geschaffene neue Lage muß in fühlbarem Gegensatz zur bisherigen stehen» (Burck 1964: 217). Lan berriago bat ikusteko, cf. Burck 1992: 59-68.

tragediari dagozkion hatsarrietan oinarritua delako tragikoa deritzon historiografiaren³¹ errekurtso hau, ohikoa eta ugaria da Libio eta beste historialari batzuen liburuetan³², baina aurkitzen da Zesarren lanean ere³³, txosten modukoa izan arren nahikoa leku geratzen baita gertakizunen dramatizaziorako³⁴. Baina era ezberdinean erabiltzen dute Zesarrek eta Libiok teknika hau. Testua koadro berdinean sartzea, interes narratibo amankomunak onestea da, baina aldeberean ezberdintasuna nabarmentzeko modu bat, konparazio bat egiten baitu, ez literatur kalitate maila ezberdinen artean baina bai –eta hau da garrantzitsuagoa– prozesu narratiboa ulertzeko bi moduren artean. Prozesu narratibo hau kasu honetan prozesu historiko ere bada edo bilakatzeko da, bai eta kontzepzio ideologiko baten isla: Zesarrek berak bere burua nabarmentzean, taldeari protagonismoa kenduz, bi idazleak bereizten dituen ezaugarri esanguratsu bat azalera du, zenbait autoreren

arabera (cf. Toher 1990: 147) Libiok ez baitu kontaktzen dituen gertakizun historikoetan banakoen protagonismoa nabarmentzeko joerarik. Faktore honek badu zerikusia sakontasun narratibo handiago edo txikiagoarekin ere.

Asko konplexuagoa da teknika hau Libioren lanean (cf. Bartolomé 1995: 168-182). Zesarren asmo nagusia bere lana, bere gudalburu eginkizuna azpimarratzea da idazlan osoan³⁵. Cytowskaren hitzetan (1984: 344) esango dugu:

Dans les Commentaires sur les guerres des Gaules, le principal personnage est le commandant en chef de l'armée, César. Il médite soigneusement chaque action, la mène avec célérité, intervient dans les moments les plus critiques, protège l'armée contre les pertes inutiles.

Handia da bere burua une erabakiorretan gudalburu arduratsu eta salbatazailerik gisa³⁶ nabarmentzeko gogoia³⁷.

31. Historialari helenistikoen artean sorturiko historiografia honen ezaugarrien oraintsuko laburpen on bat dago, hots Rodríguez Alonso 1991: 279-296.

32. Teknika honen adibide batzuk ikusteko, cf. Erren 1983: 178-192.

33. Sanbreko nervioen aurkako gudaldikoa (2. 25) da Zesarren lanetako *peripeteia* adibide deigarrienetakoa, Zesar bera sartzen baita borrokaldian arriskuaren partaide bihurtuz: «scuto ab nouissimis uni militi detracto, quod ipse eo sine scuto uenerat, in primam aciem processit centurionibusque nominatim appellatis reliquos cohortatus milites signa inferre et manipulos laxare iussit...». Hona hemen Zesarren beste ustegabe etsenplu batzuk: 2. 27.1-2; 2. 30.3; 5. 51; 6. 37-38; 7. 12.5-13.2; 7. 47; 7. 56.

34. Honela dio Görler ikerlariak (1977: 330-331): «in allem Fällen aber geht eine ästhetische Faszination aus von der Spannung zwischen Vorbereitung und Zuspitzung der Peripetie. Noch deutlicher ist die ästhetische Motivation bei der kunstvollen Gliederung des siebten Buches». Ikus orobat Pascucci 1973 eta Rambaud 1979, Zesarren kezka artistikoei buruz.

35. Zesarren idazlana egituratzen duen hatsarri gisa ikertu du Görler-ek (1977) *peripeteia* edo ustegabea.

36. E. Wyss, *Stilistische Untersuchungen zur Darstellung von Ereignissen in Caesars bellum Gallicum*, 1930, 55-64 (Gärtner 1975: 111-tik hartua): «Dann aber muß etwas Unerwartetes, fast Unmögliches eintreten, und dieses geschieht durch der persönlichen Eingriff Caesars in die Schlacht. Die Wendung in Lauf der Ereignisse, die daraus erwächst, hat in der Darstellung die Schärfe einer "tragischen Peripetie", und Caesar mißt sich um einen weiteren Terminus aus dem Gebiet der tragischen Technik anzuwenden, geradezu die Rolle des "deus ex machina" zu».

37. Cf. Rambaud 1966, passim. Gutxiago konprometitzen da baina esanguratsua da orobat A. La Penna-k dioena (1978: 182): «Cesare non ha rotto con la tradizione ellenistica che amava drammatizzare la storia: tutti i grandi narratori storici drammatizzano e, se l'età moderna è così povera

Libiok ez du narrazio molde hau gaitzesten baina aldatu egiten du maiz (cf. Bartolomé 1995: 166 hh.), aztertzen ari garen kasu honetan bezala. Gudaldi hasieratik ari gara alor erdi magiko-erlijioso erdi errealean. Alde militarra ez da interesgarri zaion bakarra, erlijioari eta gizakiari berari dagozkionak ere begiko baititu. Galiarren orgak ikustean sortzen den egoeran, gudalburua agertzen da, baina ez Zesarren bertsioan bezala gudalburu eginkizunetan ekin eta gudaldia zuzenduz, bere-berea duen modu batean baino, hain zuzen Erroman kodifikaturik zegoen eskaintza erlijioso bat eginez, *deutio*-a alegia.

Irtenbide konplexu bat da, Dezioren ekintzak ez baitakar zuzenean garai-pena, Zesarrek egiten zuen bezala; egiten duena da erantzun bat sortu gudarien jarreran. Gudaldia ez da erromatarren garaipenarekin amaituko, gero beste gudalburu bat iristen denean baino. Faktore ezberdinak izango dira kontakizunean tentsio mailaketa ezarriko dutenak, modu egokiagoan burutzeko, jarrera aldaketak ez baitakar zuzenean erabateko iraulketa. Elementu eraldatzaileranzko hurbilketa mailakatua dago Libioren kontaketan, eta aldaketa soilak dagoe-nean, saio anitz dago, beti eskema berarekin, metaketaz lortzeko mailaketa eta tentsioa. Zentzu honetan, kontutan izan behar da Errepublikaren azkenetan eta Printzipatuaren hasieran banakoaren protagonismoa taldearenaren aurretik jartzeak, edo alderan-

tzizkoak, inplikazio ideologikoak dituela.

Ez dugu esan nahi iraulketa prozesuak denak berdinak eta hain soilak direnik Zesarren lanetan, hauek ere landuak baitira. Baina idazlanaren helburuarekin bat datorren eredu nagusi bat hartzeko joera dago eta gudalburuaren birtuteak modu erabat positiboan aurkezten dira. Ez da M. Rambaud-ek (1966) aipatzen zuen deformazioa, nahita eginiko lanketa artistikoa baino, propaganda xedearekin irakurlearengan eragin jakin bat izan nahi badu ere³⁸.

Idazleak begien aurrean jartzen digun interesgunea zein den aztertzea ere komeni da, Zesarren aukeran, bera agertzen denean ahaztu egiten baitira gudariak eta Libioren ordea, garrantzia baitute hauen erreakzioek ere, gudalburuaren eta gudarien ekintzek elkar osatu eta kontaketari indarra ematen diotelarik. Horregatik agertzen dira Libioren kontakizunean asaldua eta sorturiko izu-laborria ere. Zesarrek idazten duena neurrikoagoa da: *reliquos perturbauerant* (4. 32.5), *perturbatis nostris* (4. 34.1). Libioren biziagoa: *ita uictorem equitatum uelut lymphaticus pauor dissipat; sternit inde ruentes equos uirosque improuida fuga... Turbata...* (10. 28.10). Gainera gudaldiaren alde ikusgarriena aurkezten du Libiok, hasiera batean gizonei barik zaldiei begiraturaz. Honenbestez eszena nahasiagoa da Libiok eskaintzen duena eta ez da geratzen gudari-

di veri storici, gli è che essa, se ha prodotto nel campo della storia dei pensatori seri, non ha dato nello stesso campo dei grandi narratori. Cesare drammatizza con vigore, ma senza gonfiezza».

38. Hona Görler-en hitzak (1976: 330): «Anders als Rambaud haben wir uns fast ganz auf formale Elemente, auf narrative Grundlinien beschränkt. Es hat sich gezeigt, daß auch diese formalen Elemente beim Leser bestimmte Wirkungen hervorrufen und ihn bei seiner Beurteilung beeinflussen können; auch die bei der Darstellung einer Peripetie angewandete Technik kann 'propagandistisch' wirken».

talde bereziaren ekintza gutxiesteko biderik.

Bi pasarteak konparatuta, beraz, imitazioaren garrantzia agertzen da, hala literatur mailan nola ideologikoan. Imitazioaren garrantzia lan historikoe-tan ere handia dela erakutsi dugu,

berari esker onarpen eta urruntze, konbergentzi eta dibergentzi aztarnak aztertze bidea baitugu lan imitazio-zailean, imitaturiko lanari dagokio-nean. Bestalde, kontaturikoaren egitasuna kaltetu gabe, kontakizun historikoa egitean idazleak aukera anitz duela erakusten da.

Bibliografia

- André, J. M., Hus, A. (1975): *La historia en Roma*, Buenos Aires.
- Bange, P. (1986): "Towards a Pragmatic Analysis of Narratives in Literature", *Poetics* 15, 73-87.
- Barthes, R. (1970): "El discurso de la historia", in *Estructuralismo y Literatura*, Buenos Aires, 37-43.
- Bartolomé, J. (1994): "Retórica e Historiografía romana: un tipo especial de relatos breves de batalla en la *Historia de Roma* de Tito Livio", *Actas del I Encuentro Interdisciplinar sobre Retórica, Texto y Comunicación*, (Cádiz, 9, 10 y 11 de Diciembre de 1993), Cádiz, 293-297.
- , (1995): *Los relatos bélicos en la obra de Tito Livio*, Gasteiz.
- Burck, E. (1964): *Die Erzählungskunst des Titus Livius*, Berlin.
- , (1992): *Das Geschichtswerk des Titus Livius*, Heidelberg.
- Conte, G. B. (1985): *The Rhetoric of Imitation*, Ithaca.
- Conte, G. B. - Barchiesi, A. (1989): "Imitazione e arte allusiva", in *Lo spazio letterario di Roma antica, vol I.*, Erroma, 81-114.
- Cytowska, M. (1984): "Jules César dans la tradition littéraire (Quelques réflexions)", *Eos* 72, 343-350.
- Erren, M. (1983): *Einführung in die römische Kunstprosa*, Darmstadt.
- Flach, D. (1992): *Einführung in die römische Geschichtsschreibung*, Darmstadt.
- Fontana, J. (1990): *La historia después del fin de la historia*, Bartzelona.
- Gärtner, A. H. (1975): *Beobachtungen zur Bauelementen in der antiken Historiographie besonders bei Livius und Caesar*, Wiesbaden.
- Görler, W. (1977): "Eine Darstellungsprinzip Caesars. Zur Technik der Peripetie und ihrer Vorbereitung in *Bellum Gallicum*", *Hermes*, 105, 307-331.
- Guittard, Ch. (1981): "Aspects épiques de la première décade de Tite-Live. Le rituel de la *deutio*", in *L'épopée gréco-latine et ses prolongements européens*, Paris, 33-44.
- , (1987): *Tite-Live. Histoire Romaine, livre VIII*, Paris, XLVIII-LXXXVIII.
- Klotz, A. (1953): "Caesar und Livius", *RhM* 96, 62-67.
- La Penna, A. (1978): "Tendenze e arte del *Bellum Civile*", in *Aspetti del pensiero storico latino*, Turin, 145-186.
- Pascucci, G. (1973): "Interpretazione linguistica e stilistica del Cesare autentico", *ANRW* 1.3, 488-522.
- Pennacini, A. (1983): *Storiografia e retorica nella cultura classica*, Bologna.
- Plett, H. (1991): "Intertextualities", in H. Plett, ed., *Intertextuality*, Berlin, 3-29.
- Pollack (1970): "Essedum", *RE* VI.1, 687-689.
- Rambaud, M. (1966): *L'art de la déformation historique dans les Commentaires de César*, Paris.
- , (1979): "César et la rhétorique", *La Rhétorique à Rome*, Paris, 19-39.

- Rodríguez Alonso, C. (1991): "La *historia trágica* helenística: Características y antecedentes", in *Mnemosynum C. Codoñer a discipulis oblatum*, Salamanca, 1991, 279-295.
- Russell, D. A. (1979): "De imitatione", in *Creative Imitation and Latin Literature*, Cambridge, 1-16.
- Strout, C. (1992): "Border Crossings: History, Fiction, and *Dead Certainties*", *History and Theory* 31, 153-162.
- Todorov, T. (1991): *Crítica de los Críticos*, Barcelona.
- Toher, M. (1990): "Augustus and the evolution of Roman Historiography", in K. Raaflauf, M. Toher, eds., *Between Republic and Empire*, Berkeley, Los Angeles, 139-154.
- Walsh, P. G. (1989): *Livy. His Historical Aims and Methods*, Bristol, [1. ed., Cambridge, 1961].
- Weissenborn, W., Müller, H. J. (1962⁶): *Titi Livi Ab Vrbe Condita libri*, Berlin.
- Woodman, A. J. (1979): "Self-imitation and the Substance of History" in D. West, A. J. Woodman, eds., *Creative Imitation and Latin Literature*, Cambridge, 143-155.
- , (1988): *Rhetoric at Classical Historiography*, Portland.